



Abenduaren 9ko mahai negoziatzailean Haurreskolak Partzuergoak eta Hezkuntza Sailak Kudeaketa langileen lan baldintzen negoziazioan emandako atzerapausu larria ikusita, eta LAB sindikatuak pasadan ostegunean alde bakarrez, STEILAS eta ELA sindikatuekin kontatu gabe, eta langileen gehiengo zabalaren babesik gabe erregistratutako hilabeteko greba deialdia ikusirik, abenduaren 18an, STEILAS eta ELA sindikatuok Haurreskoletako Kudeaketa langileekin batzarra burutu genuen. Bertan, kolektiboaren gehiengoak langileekin adostu gabeko greba deialdiarekiko haserrea plazaratu zuten.

Greba deialdiaren babes falta eta langileen haserre giroan, Haurreskolak Partzuergoak eta Eusko Jaurlaritzak hilaren 23rako Mahai Negoziatzaile baterako deialdia egin ziguten atzo, gai ordenak puntu bakarrekoa izanik: Kudeaketa arloko proposamena.

STEILASek eta ELAk, mahai guztietan egin dugun bezala, kudeaketa langileak borroka abian jartzera bultzatu zituzten aldarrikapenen gaineko proposamen integrala exijituko dugu, eta ez dugu kolektibo honen egoera prekarioa, lan zama eta ezegonkortasun kronikoa betikotuko duen proposamenik onartuko.

Egoeraren larritasuna ikusita, LAB sindikatuari interes propioak alde batera uztera, Kudeaketa Langileen gehiengoak burututako urte beteko borrokari babesa ematea eta bai langile eta baita gainontzeko sindikatuekin ere zintzotasunez jokatzea eskatzen diogu.

.....

Ante el grave retroceso en la negociación de las condiciones laborales del personal de gestión por parte del Consorcio Haurreskolak Partzuergoa y de Departamento de Educacion en la mesa del pasado 9 de diciembre y el posterior registro el 18 de diciembre de una convocatoria de huelga de 1 mes por parte LAB sin tener en cuenta a STEILAS y ELA, y sin el apoyo de la inmensa mayoría de trabajadoras y trabajadores del mencionado colectivo, los sindicatos STEILAS y ELA realizamos una asamblea de trabajadores y trabajadoras. En ella, las trabajadoras y trabajadores mostraron su enfado con la mencionada convocatoria ni consensuada de huelga.

En un ambiente condicionado por el enfado de trabajadores y trabajadoras y por la falta de apoyo a la convocatoria de huelga, el Consorcio Haurreskolak Partzuergoa y la Consejería de Educación nos convocó a una mesa de negociación para el proyecto 23 de diciembre con un único punto a tratar: una propuesta para el área gestión.

Como hemos hecho en todas las mess de negociación, STEILAS y ELA exigiremos una propuesta integral sobre las reivindicaciones que han llevado al personal de gestión a la movilización. No vamos a aceptar una propuesta que perpetúe la precariedad, carga de trabajo y la inestabilidad crónica de este colectivo.

Ante la gravedad de la situación, instamos a LAB a que deje a una lado sus interese propios, que apoye la lucha que a lo largo de un año han llevado trabajadores y trabajadoras del colectivo y actúe de manera honesta con trabajadores y trabajadoras y los demás sindicatos.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO KUDEAKETA LANGILEEN LAN BALDINTZA DUINAK NEGOZIATU!!!

Euskal herrian, 2019ko abenduaren 20an.